



NPZE

Nekazal Prebentzio
Zerbitzu Elkartea



NPZE

Nekazal Prebentzio
Zerbitzu Elkartea

emba
EUSKAL NEKAZARIEN BATASUNA

sustatutako ekimena

AMOREBIETA-ETXANO (BIZKAIA)

San Pedro, 30 Behea
Tfno: 946300769 · Fax: 946733274
E-mail: bizkaia@enba.es

TOLOSA (GIPUZKOA)

Trinkete Plaza, 2 Behea
Tfno: 943 650 123
E-mail: gipuzkoa@enba.es

Baserritarrak, nekazaritza eta abeltzaintzako enpresariak diren neurrian, langileen kontratuak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzeaz gain, bere instalazioetan beren langileen segurtasuna eta osasuna ziurtatu behar du.

Prebentzio Zerbitzu Elkarteak, nori dago zuzenduta? Zergatik?

Baserritarra - Nekazari enpresaburuei guztiei, langileak kontratatzen dutenak edo jarduera beste enpresa edo autonomoei azpikontratatzan dutenei.

Baserritarra - Nekazaritzako enpresaburuei guztiei hirugarren batentzat lan egitekotan.

Enpresa batean langile bat dagoen bitartean, langilearen segurtasuna eta osasuna babestu eta bermatu behar delako, laneko prebentzio legea betez.

Zer da prebentzio zerbitzua elkarte bat?

Elkarteak osatzen duten enpresa desberdinek osatzen duten prebentzio-zerbitzua da. Enpresa horiek produkzio sektore beran parte hartzen dute eta prebentzio ekintzak enpresa horiei zuzenduta daude.

Enpresa batean prebentzioa aurrera eramateko beharrezkoak diren Giza eta material baliabideen multzoa da. Azken batean, langilearen osasuna eta segurtasuna bermatu behar dira. Horretarako enpresei, langileei eta beren ordezkariari kontseilua, aholkua eta asistentzia eman behar zaizkie.

Nekazari enpresaren Prebentzio antolaketa

Enpresak ondoko prebentzio-modalitate hauen artean aukeratu behar du:

- Enpresak bere gain hartu (6 langile baino gutxiagokoa bada enpresa eta bertan arrisku biologikoa ez bada).
- Langileak izendatzea.
- Kanpo Prebentzio Zerbitzua hartzea.
- Prebentzio zerbitzu elkarteak.
- Goiko konbinazioen bat egitea.

Prebentzio zerbitzu elkartearen funtzioak

Gure helburua nekazari enpresaburuak prebentzio araudia bete dezala da, horretarako ondokoa garatu dugu:

- Prebentzio-planak diseinatzea eta aplikatzea.
- Arrisku ebaluazioak egitea.
- Prebentzio-plangintzen antolaketa.
- Prestakuntza eta informazioa langileentzat.
- Lan istripuen edota kalteen ikerketak.
- Prebentzioan laguntza eta asistentzia enpresariari.

Prebentzio elkarteak bat egiteko arrazoiak:

Arrazoi batzuk hauek dira:

- Arrazoi ekonomikoak. Nekazari enpresetan eta batez ere txikiak direnean elkartzeak prebentziorako kostuak jaisten ditu. Beraz enpresarentzat aurrezteak dakar.
- Prebentzio eskakizunak betetzeko aholkularitza eta informazioa ematen zaie enpresei.
- Lan istripu asko dituen sektore honetan, lan baldintzak hobetu eta lan istripuak ekiditeko.

Zer egin bat egiteko?

1. Esaiguzu deitu edo etorri ENBAko edozein bulegora.
2. Bat egiteko akordioa sinatu.
3. Ezarritako kuota ordaindu.

